

Baleile

Zumaiako herri aldizkaria. 34. zenb. 1997ko apirila. 100 pzta.



Kostako errepide bedeinkatu hau!

Elkarriketa

**Joxe Migel
Irigoién,
San Telmoren
zaindaria**

Ze berri?

**Gernikako
parkeko etxeen
obrak gelditu
ditu Udalak**

Ze berri?


**Alegazio ugari
portua
ordenatzeko
planari**

M. Irigoyenek utzitako argazkia



1955eko ESKOLA TXIKIKOAK

Maria Asun Barinaga eta Mari Vi Irigoyen maistrekin batera ageri dira 55ean oraindik ere eskola "haundian" hasteko zeuden neska-mutilak, hau da, 6 urtez azpikoak. Korbatadunak, repeinautakoak, negarrez, burua igurtzitzen, beste aldera begira, serio, haserre... Ez zen giro izango hauek gobernatzen!




kutxa fundazioa
fundación

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Aldizkari honek Eusko
Jaurilaritzako Kultura Sailaren
dirulaguntza jaso du



ZUMAIAKOUDALAK
lagundutako aldizkaria



BALEIKE HERRI ALDIZKARIA

Foronda kultur etxea

tfnoa: 86 10 56

faxa: 861742

argitaratzailea

ZUMAIKO

GAZTE

BATZORDEA

lantaldea

Iratxe Aizpurua

Esther Martinez

Eneko Dorronsoro

Xabier Azkue

Igor Uranga

Josu Waliño

Gorka Zabaleta

Juan Luis Romatet

Kolaboratzaileak

Ostarrena Zine Klub taldea,

Natur Taldea, Zumaiako

Institutua, Dani Carballo,

Bertso Eskola, Romu Artetxe,

Miriam Romatet, Ainara

eta konpainia, Amaia Benito, Jon

Manzisor, Igone eta Nerea,

Josu eta Arantxa, Asier eta Fran,

Ainhoa Iturbe, Mattin, e.a.

publizitatea

861056 tlf.

inprimategia

Gertu Koop. E.

(Zubillaga - Oñati)

tirada: 900 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

**BALEIKEk ez du bere
gain hartzen aldizkarian**

adierazitako

esanen eta iritzien

erantzukizunik.

Izerdi patsetan
**Krosean bero
eta
giro ederra**
....24. or.



Festak:
**Heldu dira
San
Telmoak!**
...20. or.



Ze berri?
**Alegazioak
portuaren
ordenamendurako
planari**
.... 6. or.

Eskukosoinuaren konpasean

Musika da askotan, norbait naizela gogorazten didana eta bihotza sentimenduz betetzen nauena; horrenbeste maitatzera iritsi naiz ezen ezin dudala bera gabe bizi.

Bizitzako momentu batzutan esaten, egiten eta sentitzen dudanak ez du zentzurik niretzat, baina hor daude sentsibilitatez betetako notak, errealitatek urrunduz poztasunez betetzen nautenak denbora gutxirako bada ere.

Eskukosoinuak nerekin kontaktatzen duenean nere pentsamendutik gogorapenak, esperientzia ezberdinak, tristura eta aldi berean poza igarotzen dira. Eta horrela istorio bat beste baten atzetik asmatzen hasten naiz, amaierarik gabekoak denak, desirak eta ametsak bertan isladaturik Platonen "ideien mundua" imajinatu eta ukitu nahian.

Baina pixkanaka nere eskuek instrumentuaren botoiak laztantzeari uzten diotenean, errealitatera bueltatzeko ordua iristen da: eskukosoinua agurtu eta bere etxetxoan sartzen dut minutu horietan bizi eta sentitu dudana guztia laister errepikatuko den esperantzaz.



**Iratxe
Aizpurua**



PREMAZKO TELEFONOAK:

Kultur Etxea	86 10 56	Ludoteka.....	14 32 64
Polikiroldegia.....	86 20 21	Tren geltokia.....	86 11 27
Gurutze gorria.....	86 10 93	Taxi geltokia.....	86 13 60
Udaletxea.....	86 02 50	Bake epaitegia.....	86 00 67
Gizarte Zerbitzuak.....	86 22 00	Posta.....	86 15 00
Osasun zentrua.....	86 08 62	Udaltzaingoa.....	86 18 70
San Juan Egoitza.....	86 12 73	Pilotalekua.....	86 21 72
Pentsiodunen Egoitza....	86 17 00	Larrialdi zerbitzua.....	46 11 11
Musika eskola.....	86 11 83	Txomin Agirre euskaltegia....	86 02 48
Alkoholikoen senideak...	47 54 03	Sexu-informazioa.....	32 04 44


NORK DARABIL MEHATXUA?

Martxoaren 17an mehatxuz beteriko mezu bat iritsi zen gure eskuetara. Penagarria bada ere azkenaldian Ezker Abertzaleko kideok jaso ditugun mehatxuak kontaezinak dira, oraingo honetan Jarraikook izan garelarik mehatxatuak. Mezu hau "Comisión ZumaYa Anti-nazi para la Liberación del Proletariado" (CYALP) delako batek igorria izan da eta taldearen izenarengatik nahiko argi geratzen da neonaziek erabiltzen duten aldarrikapenen ildo bera jarrai dezaketela.

Gu omen gara mehatxatzen dugunak, beraiek ordean ez: «*Si alguien más es amenazado serán tomadas represalias contra vuestros dirigentes, porque «nosotros» también sabemos donde vivís (...)*» diote; guk inoiz inor mehatxatu ez dugunean, beraz diotena gezur hutsa da. Gainera "también" horrekin adierazten du "guk" badakigula "beraiek" non bizi diren. Ez al zaizue hau zail xamarra iruditzen CYALP delako horren kideak nor diren ere ez badakigu??

Azken hilabeteotan Ezker Abertzalea eta batipat gazteok jasaten ari garen pertsekuzio polizial, errepresio basati eta

GUTUNAK



Atal honetan zumaiaarren ohar, iritzi, kexa guztiak bildu eta argitaratu nahi genituzke.

Gutuna Forondara bidali edota Erribera kaleko buzoian utz dezakezu.

atxiloketa masiboekin lasai bizitzen uzten ez eta gainera hauek zera gaineratzen dute: «*Por lo tanto ofrecemos nuestra protección a todas las personas que están en contra de Jarrai, y demás mafia, y que están esperando que alguien de el primer paso (...)*». Guk ez dugu inor mehatxatu ez erasotu (ezta egingo ere), beraz, nork eman du lehen pausua? CYALP delako horren kideek gainera, jada mehatxu zuzena darabilte «*Jarrai y demás mafia quedais avisados de que puede lover ostias (...)*» Beraz, nor da mehatxatua eta nor mehatxua luzatzen duena? Ez al da «beraiek» diotenaren aurkakoa gertatzen? Idatzi honekin benetan nabarmendu dirrela deritzogu.

Aipatu beharra dago ere, mehatxu honen inguruan alkatearekin ere hitzegin genuela baina ez dugu uste asko merezi duenik pena elkarrizketa horren berri ematea. Soilik adierazi, alkatea harira joan ordeaz adarretatik gehiago ibili zela.

Orain artean, «Gora GAL», esbastiak... eta azken mezu hau izan dira besteak beste jaso izan ditugun mehatxuetariko batzuk.

Gazteok mehatxatuak eta kartzelaratuak, Elejalderen (eta beste hainbesten) torutrak, Josu Zabala erahila, presoekin legea bete gabe.... Guzti hau gizarte ez-demokratiko batetan bizi garenaren adierazgarri baino ez da. Zerbait gehiago ez gertatzea zure esku dago, denon esku dago. Ekin diezaigun lanari!!

JO TA KE, INDEPENDENTZIA
LORTU ARTE!!

Zumaiaiko JARRAI

OHARRA: Mezua bere osotasunean irakurri nahi duenak Inpernupen dauka. Izan ere hain herri "demokratikoan" bizi garenez kalean (nahiz paneletan) jarri genituen paper guztiak berehalaxe kendu zizkiguten.

Antonio Etxabe
Gizonezkoen erropak



Zunbillo 4
Tlf: 861407



ROSI
GARBIKETAK

- Etxeak eta dendak
- Enpresa eta auzo lanak
- Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi 3-A
Tlf. 861670



Habana
auto



Mekanika eta
karrozeria

Axular ibiltokia, 14 . 86 00 70
Zumaia



Ekonomia



**ANTXOKA
AGIRRE**

Kalean ez dabil ia inor. Hotza, euri tantak. Zigarro bat eskatu diot norbaiti, beste bati gero, eta baita beste bati ere. Beltza bakarrik. Beltza erre behar, hau dek ruina hau.

Egun motelak izaten dira San Telmo bezperako asteetakoak. Mugitzen den merkatu bakarra trapitxeoarena izaten da, gainerantzekoan numero nahiko pobreak: 4 katu lhintzan, 7 Nikolen, 2 Inpernupen ... 40 duro, 3 zurito, eta 2 ur... ahorratu egin behar.

Sistema kapitalistaren legeak dira; gastatu ahal izateko dirua behar da lehenik, eta gastatu gabe ez dago parranda natural bat egiterik. Honela, nere kasuan bezala, ikasle batek 11 penalidade pasa behar izaten ditu San Telmotarako beharrezkoa duen diru hori juntatu ahal izateko.

... ze pentsatzen dezu, Banko de España geala? ... zertan gastatu behar dezu hainbeste diru? ... utzi billete hori zeon lekuan! ... Lanik izan ezean dirua gurasoei eskatu behar izaten zaie eta ez da eszena xamurra izaten; aurpegi arraroak, oihiak, biolentzia. Betikoa. Jarrera hori orde, neurri batean behintzat, ulergarria da, beraiek ere sistema kapitalistaren biktimak baitira. Ez dira sobrate ibiltzen.

Egoera hau konpontzeko bide egoki bat amarekin kontrato basura bat egitea litzateke, hau da, zeuk urte guztian zehar etxeko basurak jeitsi eta berak ordainetan San Telmotarako dirua protestarik gabe ematea. Ontziak garbitu, afariak egin, eta horrelakoekin ere negozia daiteke basurarena oferta eskasegia balitz.

Beste soluzio bat erretzeari uztea izan daiteke.

Pentsa eta pentsa aritu naiz eta ez zait bestelakorik okurritzen.

Gainera gehiago idatziagatik ere Baleikekoek ez didate ezer ordainduko, hauen ekonomiak nireak bezala ez baitu erremedio haundirik. Ez noa burua alperrik gehiago nekatzera.

Korrika



**Doinua:
Iparragirre
abilla dela**

**UNAI
GIJARRO**

**Tipi ta tapa tipi ta tapa
kilometroak eginez
denok euskera bultza nahiean
gabiltz ekinan ekinez
erabili euskera
izkututik atera
dezagula ahaleginez
gure hizkuntza bihotzetikan
maite degulako zinez**

**Guk egunero hogeita lau bat
kilometrotan barrena
ikustarazi beharra degu
euskerak duen kemena
Korrika ez da bukatu
beti euskeraz mintzatu
ez galdu itxaropena
denon artean manten dezagun
gure hizkuntza gailena**



**ZORUEN KUTXILAKETA ETA BARNIZAKETA.
PARKETA JARTZEA.**

Estazioko 12 Tel.: 861412



**SANEAMENDUA - KALEFAKZIOA - GAS INSTAKUNTZAK
GAS NATURALA - INPERMEABILIZATZEAK
ERAIKUNTZA LANAK - BAINUAK
SUKALDEKO ALTZARIAK**

**Iraeta auzoa, z/g Tel: 148082
78 Posta kutxa Fax: 148081
20740 IRAETA - ZESTOA**



**Esther Blanco
OSTEOPATA-MASAJISTA
Basadi 5-C behea
Tlf: 143404 - 860012**


Kirol portua ordenatzeko plana kalean

200 alegaziotik gora eta kritika ugari jaso ditu plan honek

Zumaiako portua ordenatzeko lukeen plan berezia kaleratu berri da joan den hilean. Plan honen arabera, Zumaiako portuak 94.500 m² hartuko lituzke, hauetatik 93.000 kirol erabilpenerako bideratuak. Guztira 200 alegaziotik gora aurkeztu zaizkio hasiera batean aprobatuta dagoen plan honi.

“Plan especial del sistema general 7. Zona portuaria de Zumaia” deitutako plan honek, Zumaiako portuaren ordenazioa izan daitekeena azaltzen du. Bertan esan bezala, 94.500 metro karratutatik 93.000 kirol portua eta bere ingurunearentzat dira, eta gainontzeko 1.500 m²-ak arrantza eta komertziorako lirakeke. Honekin batera EPIA (Evaluación Preliminar del Impacto Ambiental) bat kaleratu da eta baita “Estudio preliminar de alternativas de ubicación de puertos deportivos en Euskadi” deitutako beste dokumentu gehigarri bat ere. Izenburutan ikusten denez dokumentu hauek guztiak gaztelania hutsez daude eta egilea Zumaiako kirol portuaren proiektua ere egiten ari den Pablo Bordi da.

Udaletxean ikusgai dagoen proiektu honek salaketa zuzena jaso du Zumaia Biziriken aldetik. Talde



Plan berezi honetan portu osoaren antolamendua proposatzen da.

honen esanetan “Udaletxea berriz ere izkutukerietan ari da, ez baitu ezer azaldu proiektu honen inguruan”. Zumaia Biziriketik plan honen inguruko informazioa azaltzen duen panel bat kaleratu zuen asteburu batean eta plan honen eragina azaldu asmoz bilera-hitzaldi moduko bat ere antolatu zuen.

Alegazio ugari

Plan hauei egindako alegazioen artean bi motatakoak bereizten dira. Batetik alegazio “herritarrak” deitutakoak, 200dik gora dira eta Erribera kalean arratsalde batean bildutakoak dira. Bestetik alegazio landuak daude, hauek beren aldetik 3 motatakoak. Lehenik natura aldetik

aurkeztu direnak, biologo, botaniko, ekologo eta ornitologoak aritu dira hauek lantzen. Bestetik kirol portuak Zumaian sozioekonomikoki nola eragingo lukeen aztertzen dutenak daude; hauetan astilleroen enklaus-tramendua, lur publikoaren pribatizazioa, lurren garestitzea, etab. salatzen dira. Kirol portua eraikitzeak suposa lezakeen uholde arriskua ere salatu da beste alegazio batzuen bitartez. Azkenik, dokumentu guztiak gaztelania hutsez egotea ere salatu da.

Zumaia Bizirik eta herritarrez gain, estatu osoko talde ekologistak ere aritu dira alegazio hauek egiten. Dena den, plan hau aurrez onartuta dago eta alegazioak onartuko ez balira aurrera jarraituko luke.

Arkupe
Okindegia
eta gosariak
Kale nagusia, 2

ERTZ INFORMATIKA
ORDENAGAILUAK
MULTIMEDIA
APIRILA-EKAINA
WINDOWS
WORD-EXCEL
Mendaro Mariñela 3
Tel./faxa 143395

Eztabaida bizia Oxford-eko bileran

Zumaia Bizirik taldeak bilera informatibo bat antolatu zuen martxoaren 19rako eta 40 lagun inguru inguratu ziren Oxford aretora, adin eta iritzi guztietako jendea.

Lehenik eta behin Zumaia Bizirikeko partaideek planari buruzko azalpenak eman zituzten, nola kirol erabilpena emango litzaiokeen ia portu guztiari eta ondoan azaltzen ditugun kontu guztiak. Era berean Udalaren jarrera salatu zuten, eta dena ezkutuan egiten saiatzea leporatu zioten.

Alkatea, ordea, jendearen artean zegoen eta hitza hartu ondoren, Udalean ez dagoela sekretismorik defendatu zuen, eta Jaurlaritzaren eginkizuna zela plan hau ezagutaraztea. Ricardok aipatu zuenez, plan honek EPIA kontuan hartu eta honen arabera zenbait hobekuntza biltzen ditu: dike bat arinduko litzateke, kapitania aldatu, uholde arriskurik ez izateko kota 4,70etik 4ra jeitsi, etab.

Inaxio Manterolak jende artetik gogorarazi zion ia hobekuntza guztiak proiektuari egindako alegazioetan oinarritzen direla, beste ubikazio batzuk badaudela eta Zumaia duen balio ekologikoa (artadiak, padura, Debarako itsasertza...) beste inon ez dagoenez, mantendu beharreko gunea dela padura ingurukoa.

Zumaia Bizirikeko partaideek, beren aldetik, EPIA lehengo proiektuan oinarritzen zela aipatu zuten, eta gauzak asko aldatzen direla oraingo proiektuarekin.



Bilera informatzailea izan behar zena eztabaida bihurtu zen.

Tentsioak gora egin zuen eta 1993ko ihardunaldiei eta geroko azterketei buruzko interpretazio ezberdinak eman zituzten bi aldeetatik. Alkatearekin batera bertaratu zen Pablo Bordi arkitektoak ere bere iritzia

azaldu zuen eta kirol portua eta padura "bateragarriak" zirela esan zuen.

Argi geratu zen behintzat zumaiaarrok hainbeste proiektu, plan eta azterketa artean galdu egiten garela eta informazioa behar dugula.

Padura zaintzeko eskaera Europatik

Itsasertza kontserbatzeko Batasun Europarrak (European Union for Coastal Conservation, EUCC) gutun bat bidali die Hegoaldeko zenbait erakunderi gure padurak hobeto zaintzeko eskatuz.

Aipatzen dituzten hezeguneen artean Zumaiakoa agertzen da, honela: "Zumaia, Urola, Kirol kaiaren proiektua. Babestu gabe". Orokorrean, bereziki nabarmentzen dute Urolako estuarioak pairatzen duen egoera.

Administrazioei bidalitako gutunean, ingurune horiek guztiak "santutegi ekologiko" gisa definitzen dituzte eta katea osoaren kontserbaziorako duten garrantzia dela eta, guztiak babesteko neurriak hartzeko eskatzen dute.



Z U M A I A



AUTO -ESKOLA

- * Gida-baimen guztiak ateratzeko baimendua
- * Praktika eta azterketak Azpeitian
- * GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea

☎ 861018



20750 ZUMAIA



TABERNA

Juan Belmonte 5 Tlf: 86 10 57

Gernika parkeko etxeak geldituta

Espedientea ireki dio Udalak "Altuna y Uria" enpresari

Joan den hilean "Altuna y Uria" enpresa Gernika parkean Zubi Txiki ondoan eraikitzen ari den etxeen obra gelditzeko agindua eman zuen Udalak, etxe hauek ez baitute araudia betetzen. Hasieran egindako planetik ia metro bateko altuera irabazi dute etxebizitza hauek.

Hainbat herritarrek agertutako kezka dela medio erabaki zuen Udalak etxebizitza hauek neurtzea. Neurketa honen ondorioz konturatu ziren azpiko baxuak behar baino 50 cm gehiago igo dituztela eta teilatu aldetik berriz beste 30 cm; guztira, beraz, behar baino 80 cm gehiagoko altuera eman diete etxe hauei.

Etxe hauen neurriak eragin zuzena dauka inguru horretan egin beharreko gainontzeko etxeetan, hauen araberakoak izan beharko baitira gainerako etxeen forma eta altuera, balkoiak elkarren parean jarri, etab.



Etxe hauen ondoan gerora beste batzuk eraikitzeke asmoa dago.

Eraikitzaileak bertako lokalen insonorizazioa eta antzerakoak argudiatzen ditu altuera hau arrazoitzeke, baina Udalak dagoeneko hartu ditu neurriak eta obrak gelditzearekin batera espedientea ireki du gai honen inguruan, zigor gisa isun bat ere ordaindu beharko dutelarik. Honetaz gain,

goitik gehitutako zentimetro horiek jeistera ere behartuko omen dute "Altuna y Uria".

Zumaia Herri Batasunak, bere aldetik, Bernabe Apestegi arkitektoa zigortzea ere eskatu du, alderdi honen esanetan "Ez baita Apestegik Udalarari horrelako gol bat sartzen dion lehen aldia". ■

Jesuskoa
Faletxea

Yaca 86 17-39 • Urdin Zumaia

xirula

ARGAZKI ETA BIDEO
ERREPORTAIK
ERREBELATZEAK
KAMARAK
MUSIKA

TELEBISTA
BIDEO
HI-FI

Erribera kalea, z/g
Tel. 861705

20750 ZUMAIA

E G U Z K I
PUB

KOKTEL
BEREZIAK

Basadi Auzategia
9-A 2-B
ZUMAIA

ZALLA
Taberna - Erretegia
PLATER KONBINATUAK
OTARTEKOAK
OILASKO ERREAK
San Pedro, 4 - Zumaia Tlf: 862387

Paki
Belardenda

OSASUN NATURALA
Erribera kalea 2, Tlf: 143156 - 86 22 44

MILA ILE APAINDEGIA

Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnua: 861160
ZUMAIA



Harri piloa Itzurunen

Marea oso biziak izan ziren lehengo hilean eta Itzurun aldean sekulako hondar mugimenduak izan ziren. Erdian putzu handi bat agertu zen eta eskubi aldean izugarri harri pila. Plaieroak jokatzeko ere nahiko lan izan zuten!

Udalak HBko Mahai Nazionalaren kartzelaratzeari salatu zuen

Martxoaren 6an izandako plenoan HBko Mahai Nazionalaren kartzelaratzeari salatu zen, HBren aldeko botoekin (3), PNV eta EAren abstentzioarekin (7) eta PSOEn aurkako botoekin (2).

Bestalde, egoera hau salatzeko, HBko zinegotziek udal batzordeetan lanean jarraituko dute, baina plenoetan ez dira dagozkien aulkietan eseriko, jendearentzat dauden eserlekuetan baizik, hauetatik parte hartuz.

Autobusa Osakidetza

Larrialditako sendagilea eskatzen duen batzordeak antolatuta, KONTZENTRAZIO baterako deialdia egin da, apirilaren 10ean Donostiako Osakidetza aurrean egoteko hain zuzen ere.

Autobusa ere antolatu da bertara joateko, dohain izango da eta goizeko 11etan irtengo da Aita Mari zinemaren aurretik. Hala ere aurrez izena eman beharra dago Mertxe, Aizpurua liburudenda edota Arkupen.

Laburrak

Euskal abizenak euskaraz

Hasiera batean, kanpaina hau martxoan zehar egingo zela adierazi genuen, baina Aste Santuko jaiegunak ere tartean direnez, epea apirilaren 19ra arte luzatzea erabaki da.

Orain arte 30 eskaeratik gora jaso dira eta hau ikusita kanpainak erantzun ona izan duela esan daiteke. Hala ere, oraindik aldaketa egiteko daukaten guztiei dei berezi bat egiten diegu, azkenengo egun hauek aprobetxatu ditzaten. Horretarako nahikoa duzue udaletxeko Euskara Zerbitzura jotzea

Begirale poltsa Ludotekarako

Herriko Ludotekan lan egiteko begirale poltsa bat osatu nahi da. Bertan lan egiteko honako hau eskatzen da: gutxienez 18 urte, begirale titulua eta euskara maila ona izatea.

Izena emateko Ludotekara joan beharra dago apirilaren 11 baino lehen (asteazkenetik ostiralera arratsaldeko 5etatik 7,30etara). Informazio gehiago nahi baduzu LAHAR Elkargora ere dei dezakezu, 474182 telefonora (goizez).

IZETA
orrastegia

Urumea 6
Tlf: 862083

ANA
ETXKO ZAPIAK

Ignacio Zuloaga enparantza
Tel. 861157

Mai aur
jolasak

Gaínean ditugu San Telmoak, eta ermitara iristen denak ikusiko du nola egun hauetan txukun eta dotore askoa dagoen jarríta. Horretantxe aritu baita aste osoan zehar Joxe Migel. Berrogeita lau urte dauzka eta azken 12etan San Telmoko ermita zaintzeko ardura bere gain dauka. Arotz eta zerbitzari lanetan ere aritu izan da, baina

Joxe Migel Irigoien

lektura egin behar duela eta; hala ere, gogo onez kontatu dizkigu ermita aldeko kontuak.

orain etxeko martxa eramatearekin nahikoa omen du. "Bere" ermitatik gertu bizi da, Larretxo aldean, eta etxean bertan hartu gaitu Ostiral Santu egunez. Presa pixka batekin dabil, komentuko arratsaldeko funtzioan

San Telmoren zaindaria

NOIZ HASI ZINEN SAN TELMOKO LANAK EGITEN?

85ean hasi nintzen, beste batzuek lan hau pasa zidatenean.

URTE GUZTIAN HOR IBILTZEN AL ZERA?

Ez, urtean jakineko egunetan bakarrik izaten dira mezak: San Telmo, San Pankrazio eta Santa Rita egunetan, eta hortik aparte izaten dira kintoko mezak, ezkontzak...

ZER NOLAKO LANAK EGITEN DITUZU?

Orain San Telmotarako linpieza jenerala egin behar degu: retablua, lurra, loreak ipini... Lanik haundienak orain egiten ditugu; gero urtean zehar mantentzea izaten da lana.

SERORE BEZELA IKUSTEN AL DEZU ZEURE BURUA?

Ez, enkargatua besterik ez naiz ni, baina batzutan danetik egin behar izaten det. Andremaian ere ibiltzen naiz laguntzen, amabirjina janzten nobenan, Parrokian ere bai, baina han Rafael gehio ibiltzen da.

NOLA PRESTATZEN DEZU ERMITA EZKONTZETARAKO?

Mantelak ipini, lore batzuk, reklinatorioa... Elizkizuna ta gero pareja etortzen da eta aldarean non



San Telmotan lan asko izaten du.

firmatu behar duten ere erakusten diet. ZENBAT EZKONTZA IZATEN DIRA URTEAN SAN TELMON?

Lehengo urtean hamabost izan ziren, eta aurtan ere uste det beste hainbeste izango direla. Hala ere kanpokoak ere asko etortzen dira: Madrیدهkoak, Mutrikukoak, Argentinakoak... Tokia polita da, paisajeak ere bai, itsasoa, eta normala da jende asko etortzea.

ERRETAULA ERE BERRITU DUTE DUELA GUTXI.

Bai, baina dan-dana ez dute bukatu. Oso polita geratu da, oso. Aldare azpian frontal bat beltz-beltza zegoen, eta orain urrea, urdin koloreak eta agertu dira. Retabluan 200 pusketa falta ziren eta gazte batzuek pieza berriak egin zituzten eta dana berritu. Oraindik ere goigoiko roseta bat eta aingeruak falta dira: batzuk puskatuta zeuden, burua falta zuten, hegoak... Eramanda daude, baina oraindik ez dituzte ekarri.

ZER BERRITU BEHARKO LITZATEKE ORAIN?

Orain sakristia arreglatzea falta da, oso gaizki dago ta. Sueloa eta kanpoko jira dana ere berrituko zituztela esan zuten, baina auskalo noiz. BANDERA GUTXI EKARTZEN DITUZTE ORAIN BEDEINKATZERA, EZTA?

Oso gutxi, aspaldian batere ez. Urte batean 30etik gora ekarri zituzten, Donostikoa ere bai. Aurtan ekartzen badituzte Don Jose joango da bedeinkatzera, espeziala da ta horretarako.

SAN TELMOAK GAINEAN DITUGU. NOLA BIZITZEN DITUZU?

Aste guzti-guztia ermitan egoten naiz, egunero. Lehenago laguntzera



Erribera kalea Telefonoa: 861523
ZUMAIA



DENDA: K. Nagusia, 8 - Telf. - Fax: 14 30 97
TAILERRA: Larretxo, 10 behe 1º - Telf. 14 34 74
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
INSTALAZIO MUSIKALAK
AKUMULADOREAK
ALARMAK
ANTENAK
PORTERO AUTOMATIKOAK



DORNUTEGI

ARMAIRU ENPOTRATUAK

Basadi Auzategia, 10 behe
Telefonoa: 862051

SUKALDEKO
ALTZARIAK

20750 ZUMAIA
(Gipuzkoa)

“Garai batean Aste Santukoak eleizan egoteko egunak izaten ziren”

joaten ziren batzuk, baina orain apenas. Bankuak korritu, fregatu, lehortzen denean argizaria eman, mantel danak plantxatu... behar dan guztia. Hor ona dagoena da dana berritua dagoela: mantelak, alba, liburua, kaliza, binajerak, alfonbrak... Ermita huts-hutsa dagoenean pobre itxura du, baina normala da, ez delako funtziorik egoten, baina San Telmo egunean edo bezperan ederki egoten da. Argiak ere berriak jarri ditugu eta urtean-urtean gauza berriak egiten ditugu.

ZEUK ERABAKITZEN AL DEZU ZER JARRI ETA ZER EZ?

Bai, bai. Nik kofraikoei esaten diet zer falta den eta haiek konforme badaude erosi eta gero faktura pasatzen diet. Lehengo urtean ekipoa erosi genuen: mikrofona, anplifikadorea, altabozak...

URDINEZ JANTZITZEN AL ZERA SAN TELMOTAN?

Behin bakarrik jantzi naiz, lehengo urtean. Beste behin jantzi nuen alkandora eta jendeak esaten zidan “*hi ez haiz arrantzalia, anaia dek arrantzalia*”, eta etxera etorri eta aldatu egin nintzen. Lehengo urtera arte ez naiz gehiago jantzi. Bestela gustatzen zait buelta bat ematera kalera irtetea: tanborrada ikusi, zeozer hartu... Baina hurrengo goizean 8retarako ermitara joan eta dena prestatu beharra izaten da eta goiz joaten naiz ohera.

Azken 12 urteotan San Telmo aldera begira bizi da Joxe Migel.



ASTE SANTUAN GAUDE ORAIN. ZER EGITEN DEZU EGUN HAUETAN?

Eleizan egoten naiz, kalean gutxi ikusiko nauczue. Lektura batzuk egitea ere tokatzen zait egun hauetan.

GAUR HARAGIRIK JAN AL DEZU (OSTIRAL SANTUAN)?

Gaur ez, Garizuma garaian bijili izaten da eta ez det jaten. Gaur gainera mojaxarrek eman digute jaten, txipiroiak eman dizkigute. Otarrean sartu digute janaria eta monjen pixuan bazkaldu degu, karmelita batek eta biok. Hari laguntzera joaten naiz ni, egun hauetan.

ASTE SANTUA EZ AL DA BESTE ERA BATERA BIZITZEN GAUR EGUN?

Eneeee, jendea ez da lehen bezela joaten eleizara. Oporrak hartu eta batzuk Benidorrera, besteak beste nonbaitera... Orain edadeko jendea joaten da gehiena eleizara. Lehenago ez zen egoten ez zinerikan, ez diskotekarikan, ez tiobiborikan... Egundauk eleizan egotekoak ziren.

ORDUAN EZ ZERA KANPORA IRTEN?

Ez, euki det aukera Galizi aldera joateko, baina hemen geratu naiz. Bestela ere ez naiz oso biajezalea, ez naiz gehiegi mugitu izan.

AFIZIOREN BAT ?

Deportea eta horrelakoak ezer ez. Ni jeneralean etxean egoten naiz, etxeko lanak eta jatorduak egiten. Nola anaia eta biok bakarrik bizi geran hemen! Telebisioa ere oso gutxi ikusten det, aspertu egiten naiz. Honbre, orain bezela Sevillako prozesioak eta botatzen badituzte gustora egoten naiz ikusten.

LORE GUSTOKOENA?

Izugarri gustatzen zaizkit lore natural danak. San Telmon asko ibiltzen dira gladioloak, krabelinak, lirioak... San Telmo egunerako krabelin gorriak jartzen dira eta bodetarako txuriak gehiago. Gehiena gladioloak eta lirioak gustatzen zaizkit.

EZ AL DA EGUNEN BATEAN ERMITA ITZURUN ALDERA ERORIKO?

Ke ba, hainbeste urtean hor egon bada, hilko gera hori eroritzerako. ■

ITSASKI
supermerkatua



Urumea kalea z/g
Zumaia

JOSEBA OSSA

-ITZULPENAK-

euskara-gaztelera-katalana
ingelese-frantsesa

Tel-Faxa: 148306-148065

MAITE
ILEAPAINDEGIA

Berezitasuna ileen
sendabidean

Amaiako plaza z/g Tlf: 143278



Mendiak errepidea irentsita

Azarotik Zumaia eta Getaria arteko errepidea moztuta egon da

Errepide horretan beti ere mila arazo egon izan da: istripuak, olatuak, lur jausiak direla... Kokatuta dagoen inguruneak ere toki berezia egiten du, alde batera itsasoa bestera mendia. Sarritan, itxita ikusi dugu, baina oraingo honetan hilabete batzuetan, eta herritarren artean kalte handiak sortuz. Dena den, egoera poliki-poliki normalizatzen doala dirudi, karril bat irekitzekotan baitira.

Zumaia eta Getaria arteko errepidea buruhauste handia bihurtzen ari da, eta behin-betiko irtenbide bat aurkitzea zaila da. Azarotik bi herri hauen arteko N-634 bide zati hori itxirik egon da lur jausi handi batek irentsi ondoren.

Urteotan etengabe arazoak eman ditu, batik-bat alboko mendi puska oso ezegonkorra delako. Ohikoa bilakatu da bertatik harri eta lur zatiak erortzea, errepidea mozteaz gain, susto bat baino gehiago eman dielarik auto gidari eta bestelakoei. Gainera, eguraldia aldrebesa tokatuz gero, zoritxarreko ustekabeko bat bizitzea ez da zaila. Hau gutxi balitz, olatuen ondorioz errepidearen eta itsasoaren arteko horma konpondu beharra dago behin eta berriro.

Dena den eta arazoak arazo, jendea ohituta zegoen jadanik oztopo



Azaroan mendiak errepidea erabat txikitu eta estali zuen.

guzti hauekin eguneroko bizitza egiten, azaroa arte behintzat. Hilabete horretan gertatutako lur jausiarekin ordea, dena hankaz gora jarri da.

ezinezkoa da, aipatutako ingurune ezegonkorra dela medio. Horregatik, sortzen diren arazoei, «partxeak» jartzea beste erremediorik ez dago.

Ingurunearen ezaugarri bereziek oso zail egiten dute errepide zati honen arazoari behin-betiko soluzioa ematea

Ingurunearen ezaugarriek zail egiten dute soluzioa topatzea eta erabateko konponbidea ematea ia

Meagas eta autopista

Azarotik zumaiarrok Meagaseko errepide gaizto eta arriskutsua erabiltzera behartuak gaude, edo bestela autopista hartzera. Meagasetik joatea benetan astuna egiten da, eta gehiago egunero hortik igaro behar dutenentzat. Bestalde, autopista hartzeko aukera ere hor dago, baina noizbehinka beharko, oso garestia irteten baita. Zentzu honetan,

ENARA, S.L.
INPRIMATEGIA



Amaiako plaza 15
Tel. 862458

ITZURUN
KIROLAK

Amaiako plaza, 13
Telef. 860758
20750 ZUMAIA



Juan Belmonte 6
ZUMAIA Tel. 860415

eta konponketak bukatu artean, autopistako peajea merketzea eskatu da Udaletik behin eta berriro, baina beti ere ezezko biribila jaso dute.

Laister bi norabidetarako karril bat irekita mantentzea espero da

Eragozpen hauek guztiak erosotasunari dagozkionak dira bereziki. Arazoa ordea, larriagoa da beste esparru batzuetan. Guardian dauden farmazietara joateko edo larrialdi kasu bat dagoenean, traba handia bihurtzen da bide alternatibo hori erabiltzea. Arlo ekonomikoari

begiratuz gero ere, negozio eta jatetxe askori kalte handiak sortu dizkie Zumaia eta Getaria arteko errepidea itxita egoteak, kasu batzutan ateak ixtera behartuz. Une hauetan lur jausia izandako zonaldea garbitzeko lanean

dihardute, eta antzeko ezer berriro gerta ez dadin horma sendo bat eraikitzen ari dira. Hala ere gogoratu laister bi norabidetarako karril bat irekitzeko asmoa dagoela. Besterik ezean...

Gipuzkoako errepide zati garestiena

1992an 200 milioi pezeta, 93an 50 milioi, 94ean 175 milioi eta 95ean 300 milioi pezeta. Guztira 725 milioi pezeta, hauxe izan da Diputazioak Zumaia eta Getaria arteko errepide zati hori konpontzeko erabilitako dirutza. Zenbakiak guztia esaten dute.

Gipuzkoako karretera guztien artean mantentzeko garestiena da, diferentziaz gainera; beste edozein baino hiruzpalau aldiz gehiago kostatzen da. Gainera, behin-betiko irtenbidea izatea ia ezinezkoa denez, Diputazioak inbertsio poltsa hau mantentzeko asmoa du. Aurten 200 milioi baino gehiago gastatuko dira, konpontze edo berritze lanetan.

Eraginik izan al du edo kalterik sortu al dizu Zumaia eta Getaria bitarteko bidea itxita egoteak?



Miren Agirre

Gaizki dago. Nere ustez autopista laga beharko lukete dohainik Zumaitik Zarautzea pasatzeko. Neri ez dit halere gehiegi eragiten, baina adibidez normalian Zarautzea pizsineta juten gea.



Luis Manterola

Nazkagarrikeri bat da. Gu gainera egunero Zarautzea juten gea eta egun hauetan betikan ari naiz juten eta ertzainak harrapatu zian eta ez dakit multa dakaten o ez. Pentsa zazu noraino gabiltzan! Tontor bat dago eginda lurrakin, baina pasa laike.

INKESTA



Joxe Manuel Osa

Oso gaizki iruditzen zait. Arazo asko ematen digu danoi. Zarautzik, Getaitik bueltan Meagasetik ibili behar izaten det beti. Jeneralian, uste det ostalaritza guztiari kalte haundia egiten ari dirala. Luzaroko baldin badihoa, herriek zerbait pentsatu beharko dute: peajea debalde uztea Zarautzik Zumairako traiekto honetan edo beste alternatibaren bat. Urtia jun eta urtia etorri, ezin da honela segi.



OPTIKA ZUMAIA

Txomin Agirre Kaia, 1
20750 ZUMAIA Tel. 143057



Amertze

Erribera kalea 6
Tel./Faxa: 861707

Ricardo Peña, Zumaiako Alkatea**“Karretera horren arazoa kronikoa bihurtu da”****ZER MODUZ DOAZ KOSTALDEKO ERREPIDEA KONPONTZEKO LANAK?**

Programaren epeak betetzen ari dira, baina nahi baino gehiago luzatzen ari dira. Zumaiar eta getariarrei eragozpen handiak sortzen dizkie. Errepide zati hori estatu mailako garestienetako bat da, diru asko gastatu da bertan. Horregatik eta konponketak egiten ari diren bitartean herritarrentzat autopistan peaje bigun bat jartzea eskatu diogu Diputazioari; baina beti ezezko erantzuna eman digu.

ZERGATIK?

Karretera horren arazoa kronikoa bihurtu da, eta zerbait gertatzen denean mekanismo automatiko bat egotea eskatu dugu, hau da, aipaturiko peaje bigun hori praktikan jartzea. Diputaziotik hau oso zaila dela esaten digute, izan ere Sustapen Ministeritzarekin negoziatzen ari dira momentu hauetan autopisten konzesioaren inguruan. Konzesio hori 2003.urtean amaitzen da, baina gauzak normal xamar joanez gero, datorren urtetik aurrera peajea %40 merketuko da. Arrazoi honengatik, orain gurea bezalako planteamendu konkretu bat gaizki datorkio Diputazioari.

BOST HILABETE ERREPIDEA ITXITA. KALTE HANDIAK SORTARAZI DITU HERRITARRENGAN, EZTA?

Kalteak oso handiak izan dira. Ostalaritzak asko igerri du, eta industriak ere bai, ibilbide askoz luzeagoak egin behar baitituzte

*Ricardok bere kezka azaldu digu.*

garraioek. Dena den, Getariarekin konparatuz askoz hobeto gaude, autopista eta Meagas hor baititugu.

BATEZ ERE GUARDIAKO FARMAZIETARA JOATEKO ETA LARRIALDI KASUETAN, JENDEA ASKO KEXATU DA.

Bai, arazo handia da hau. Osakidetzari gainera insistitu zaio gai honen inguruan, urtero errepide hori itxita egoten dela sarritan eta soluzio bat eman behar zaiola, baina ez digute kasurik egiten. Behintzat lortu degu Zumaiar Gurutze Gorriko anbulantzia mantentzea, azken hilabeteetan kostaldeko errepidea itxita egon dela ikusita, nahiz eta Osakidetzak kentzea nahi duen.

IRTENBIDEAK AURKITZEKO, LANKIDETZARIK IZAN AL DEZUE DIPUTAZIO ETA BESTE UDALEKIN?

Lankidetzak eta elkar laguntza handia izan degu, baina kontua da konponbidea aurkitzea oso zaila dela. Guk proposatu degu adibidez errepide hortako gune zehatz batzuetan tunel batzuk egitea, lur jausiak daudenean hondakinak uretara joateko. Kostua handi xamarra izango litzateke, bai, baina azken urteotan konponketetan dirutza handia gastatu da; hori hor dago. Bestalde, aurrera begira bariante bat egitea ere pentsatuta dago, gaur egun Zumaiar egitea pentsatuta dagoenaren ezberdina, Santiotik Oikia bitartera tunel bat izango lukeena.

ERREPIDE HORI BETIRAKO IXTEA PENTSATU AL DA?

Guk Udal bezala ez degu hori nahi. Hala ere, Diputaziotik nahi da Meagaseko errepidea potentziatu, hobekuntza batzuk eginez. Hau positiboa litzateke dudarik gabe, batez ere kamioientzat. Baina kostaldeko errepidea hor egongo da, eta mantenimendu bat eskatuko du.

NOLAKOA DA, BERAZ, KARRETERA HORREN ETORKIZUNA?

Iluna. Horrela jarraituko degu, arazoa hor egongo da eta gelditu gabe dirua gastatzen segitu beharko da. Konpontzeko, mendia kendu beharko litzateke, eta hau noski, ezinezkoa da. ■

ILE APAINDEGIA**herea
uranga**

Etsezarreta, 19
Telefona: 862342

20750 ZUMAILA

TXALAPARTA
O P A R I A K

Angeles Sorazu 2
Tel: 143089

LOREDE NDA

LANDAREAK
LOREAK
HAZIAK
ZERAMIKAK

Erribera 1 Tel. 860375



Zumaia ere Korrika!



Hamabiak eta laurden aldera iritsi zen Zumaiaara arratsaldean Arantzazutik irten zen Korrika. Ehundaka zumaiaar bildu ziren ongi etorria eman eta kilometrotxo batzuk egitera, nahiz eta batzuk oraindik oilaskoa eta entsalada eztarriko zuloan izan. Izan ere, afari ederra egin baitzuten 50 lagunek Inda-Mendin, trikiti doinu eta bertsoz lagunduta. Oikian ere jende piloa elkartu zen, bai afaltzera eta baita saltaka egitera ere, Korrika bertatik igarotzen zela aprobetxatuz. Txikienek ere izan zuten beren Korrika Txikia, beheko plazan festa batekin amaitu zena. Bukatzeko, Korrika kulturalaren barruan, antzerkia eta zinea ere izan genituen gure artean.





Auto - Konponketak



ELKAR



Estazioko kalea
20750 ZUMAIA Telefonoa: 860201







Zergatik geratu naiz *Haurdun* ?

Haurdun geratzearen erabakia aurrez hartua ez bada, gerora erantzun koherente bat bilatzea ez da saio erraza.

Nola da posible saldu diguten "askatasun sexualarekin" nahi gabe haurdun geratzea? Egia da garai batean baino erraztasun gehiago dituela gaur egun mutil batek neska batekin oheratzeko... Hori, saldu diguten askatasun horretan datza, emakumeei kalera ateratzeko aukera eman zaie. Baina nork eskeini die beren sexualitatearen jabe izatea?

